Ozio eta Berguenda artean, gizakiek irekiriko harpe bat miatu genuen. Sarrera errektangularra, metro bat zabal eta bi-bi t'erdi garai. Galeria luze eta estu batek sarrera egiten dio sapai gangadun sala ttiki bati. Garrantzi arkeologikoa eman liezaiokeen datua: atetik metro batzutara, eskuinaldean, barruan gurutze bat ageri duen zirkulu bat ageri da grabaturik. Laño eta Faido eliza artifizialen munduaren inguruan geundeke, nahiz honelakoa ziurtatzeko beste daturik ez dugun.

## A.1.3.3. **Cuenca del río Araia**

Dirigida por Mikel Beorlegi Ereña.
Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

El proyecto de investigaciones orientado a la localización y el estudio de yacimientos prehistóricos Post-Paleolíticos, desarrollado en la zona oriental de la Llanada Alavesa, ha finalizado su segunda campaña de prospecciones.

Preferentemente se han revisado las zonas de pie de monte, dedicadas en su mayoría al cultivo, con la problemática que para el estudio de los hallazgos depositados en este tipo de contextos supone: deterioro, dispersión, mezcla de niveles... Esto nos ha llevado a conducir el estudio de estas concentraciones de materiales, en la línea de estratigrafías horizontales, para estos niveles superficiales revueltos, con el fin de individualizar paralelismos y diferencias que, posteriores actuaciones estratigráficas podrán verificar.

En el curso de esta campaña se ha prospectado, además de en las entidades de Andoin, llarduia y, Egino, en las de Albéniz y Araia, revisando las noticias anteriores a este proyecto, también las que se generaron durante el año 1989 y, evidentemente, localizando nuevos yacimientos.

El equipo compuesto por Valentín lurre, Luis Gil, Antonio Rodríguez, Sebastián Hoces, Mikel Beorlegi y otros colaboradores, ha revisado las zonas anteriormente citadas, localizando nuevos yacimientos o noticias en los siguientes topónimos:

*«SOLANDIA», «CAMINO DE ALBENIZ», «RONDIZAESAL»,* y, *«ESKABITA»* en llarduia. Se trata de una serie de concentraciones de industrias líticas de poca entidad, no excediendo de cuarenta monturas, y restos de pulimentación, asociadas en los dos primeros casos, a manchas oscuras en el terreno. Estos yacimientos ubicados en las proximidades del río Araia, parecen similares a los de Narra, Santira Kalizondo, Sorabil o, Ariata (Campaña de 1989) con una actividad de explotación del sílex de la zona, en pequeños asentamientos dispersos.

Término del *Amestutxo,* (llarduia, Albéniz). En una pequeña vaguada protegida de las corrientes de aire, y, enmarcadas en los márgenes del río Ukuma, una serie de alteraciones cromáticas del terreno nos señalan varias concentraciones de industrias líticas fragmentos de útiles pulimentados, y restos de barro cocido. Otro interesante yacimiento, por la variedad y número de artefactos recuperados se encuentra en el *Camino de Basáez.*

En un tramo de camino de 55 m. aparece un cúmulo de útiles y de restos de talla que demuestran una gran



## A.1.3.3. **Araia ibaiaren arroa**

Mikel Beorlegi Ereñak zuzendua.
Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

Paleolitos Aroaren ondoko aztarnategi prehistorikoak aurkitu eta ikertzeko proiektuak bigarren miaketa kanpaina burutu du, Arabako Lautadaren ekialdeari dagokionez.

Mendiondoak miatu dira nagusiki, lurgintzari utzitako lurrak nagusiki. Guztiok dakigun bezala, gisa honetako eremuetako ikerlanek higadura, barreiapena, maila nahasketa eta abarri egin behar diote aurre... Honenbestean, materarial multzoetan, materiala nahasian ageri den multzoetan, burutu ditugu ikerketak, horizontaleko estratigrafiak. Banan bana bereizi nahi izan ditugu multzoak, ondoren burutuko diren estratigrafi lanak erraztearren.

Kanpaina honetan Albeniz eta Araian ere burutu ditugu ikerketak, Andoin, llarduia eta Egino herrietakoez gainera. Proiektu honen aurreko datuak bildu dira, baita 1989. urteko kanpainak eman zituenak, eta aztarnategi berriak aurkitu ditugu.

Valentin lurre, Luis Gil, Antonio Rodriguez, Sebastian Hoces, Mikel Beorlegi eta beste laguntzaile batzuk osaturiko taldeak aipaturiko zonaldeak miatu ditu eta aztarnategi berriak aurkitu edota albiste berriak bildu ditu honako toponimoen inguruan:

*«SOLANDIA», «ALBENIZKO BIDEA», -RONDIZABAL»* eta *«ESKABITA»* llarduian. Garrantzi eskaseko harri industria ageri duten multzoak dira, berrogei ale baino gehiago ez. Pulimentazio aztarnak ageri dira eta, lehenengo bietan, orban ilunak erakusten ditu lurrak. Araia ibaiaren inguruan dauden aztarnategi hauek 1989ko kanpainan ikertu ziren llarra, Santira, Kalizondo, Sorabil edo Ariatakoen tankerakoak dira: zonaldeko sukarriaren erabilera, finkamendu anitzak.

*Amestutxo* (llarduia, Albeniz). Haize korronteetatik babesturiko ibar ttiki batean dago, Ukuma errekaren ertzetan. Zoruko aldaketa kromatiko batzuk harri industriaren presentzia salatzen dute. Harriarekin batera, leunduriko tresna puskak eta lur errea, puska batzu baita ere.

Beste aztarnategi interesgarri bat dago Basaezko bidean. Aurkitu den materiala ugari eta anitza da.

55metroko bidetarte batean tresna eta taila hondakin batzu ageri dira, iharduera teknologiko baten erakusle



Peña de San Miguel. En su entorno se asientan los yacimientos de Txurigurri y el Camino de Basáez.

San Migel haitza. Inguru horretan daude Txuriturri eta Basaezko bideko aztarnategiak,



actividad tecnológica, con un alto índice de raspadores y denticulados, así como de útiles de aspecto campiñoide. A esto hay que añadir la aparición de un único elemento (hacha) pulimentado en roca basáltica, con la zona medial fuertemente repiqueteada. Partiendo del término de *Berezeka* (mencionado por D. J.M. de Barandiarán) en dirección a la Peña de San Román, nos encontramos ante una zona en la que numerosos bloques calizos cue en ocasiones ostentan unas respetables

(karraskailuak eta ertz horztunak; itxura kanpinarreko tresnak). Leundutako tresna bakarra agertu da, erdialdea guztiz pikatua ageri duen basaltozko aizkora bal-

José Migel Barandiaranek aipatzen duen *Berezekatik* San Román haitz aldera abiatuta, kararrizko bloke batzu aurkituko ditugu, handiak oso zenbaitetan. Mazelean barreíaturik daude, haitz haietan maizetan gertatzen diren lubizien ondorioz. Aizkomendi eta Berlajaran megalitoak

dimensiones, se encuentran diseminados por la pendiente como consecuencia de los procesos de desprendimiento del frente de las peñas. La proximidad a los megalitos de Aizkomendi y de Berlajarán lleva a considerar la zona como de abastecimiento de elementos para montar los citados monumentos.

Todos los materiales generados en estas prospecciones se encuentran en proceso de estudio.

Hasta la fecha, hemos limitado nuestros trabajos a esta red de yacimientos al aire libre, que tienden a elegir una ubicación, orientándose al sur de las sierras de Alzania y Urkilla, próximos a corrientes hidrográficas, aprovechando la protección de alozanos o en vaguadas, y también en varios casos cercanos a las zonas bajas (y en los altos) de los principales pasos de montaña coincidentes con cañadas contemporáneas.

Esperamos poder verificar en próximas campañas, la situación estratigráfica de estos conjuntos y, orientar las prospecciones a revisar zonas de sotobosque, laderas, altozanos, abrigos, cañadas, etc...

hurbil izaki, eraikuntza megalitikoak altxatzeko behar ziren elementuak eremu hartatik hartuko zituztelakoa kontsideratu da.

Miaketa hauetan aurkituriko material guztiak aztertzen ari gara.

Orain arte haize zabaleko aztarnategietan baizik ez dugu lan egin. Kokalekuari dagokionez, Altzania eta Urkilla mendizerren hegoaldean daude, ur korronteen ondoan, muinoen babespean eta ibarretan. Zenbaitetan mendate (egungo meharguneak) eta gainetan ere aurki daitezke.

Hurrengo kanpainetan zehaztu nahiko genituzke multzo hauei dagozkien estratigrafiak eta oihanpe, mazel, goi-muino, babesleku, mehargune eta abarretara bideratuko ditugu miaketak.



### A.1.3.4. **Valle de Valdegobia**

Dirigida por Francisca Sáenz de Urturi.
Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

Siguiendo un plan de prospecciones para el estudio de los asentamientos prerromanos, romanos y medievales del valle de Valdegobia y alrededores elaborado por varios miembros del Instituto Alavés de Arqueología, durante ese año se continuaron con la revisión de zonas susceptibles de ser yacimientos, y con la revisión de yacimientos ya conocidos para comprobar datos para su completo estudio y catalogación.

Siguiendo estas premisas se prospectaron los siguientes lugares:

— Alrededores de Salinas de Añana: revisión del poblado de La Isilla (En la Carta Arqueológica de Álava figura con el nombre de La Desilla), con recogida de material. Se revisaron las terrazas cercanas situadas hacia el Este con resultados negativos.

— Revisión de la zona entre Basquiñuelas y Salinas de Añana donde existe un camino y varios puentecillos que pudieran corresponder a una antigua vía de comunicación.

— Revisión del poblado de El Castillo de Astúlez con niveles de ocupación de la Edad del Hierro y Edad Media para comprobación de datos.

### A.1.3.4. **Gaubea Harana**

Francisca Saez de Urturik zuzendua.
Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

Arabako Arkeologi Institutuko partaide batzuk Gaubea haraneko eta inguruetako finkamendu aurrerromatar, erromatar eta ertarotarren ikerketarako burutu zuten miaketa planari jarraiki, aurtengoan aztamategiak ezkuta ditzaketelako zantzuak eskaini dituzten zonaldeak miatu eta, betiereko ikerketa eta katalogazio datuak zehaztearren, aztarnategi ezagunak berrikuskatu ditu.

Ardatz honi jarraiki, honako leku hauek miatu genituen:

— Añana-Gesaltzako inguruetan: La Isilla bizilekuaren miaketa eta material bilketa (Arabako Arkeologi Kartan La Desilla izenaz ageri da). Ekialderantz zabaltzen diren terrazak ikuskatu ziren eta ez zuten emaitza positiborik eman.

— Baskiñuelas eta Añana-Gesaltza herrien arteko zonaldea miatu zen. Eremu honetan, antzinateko komunikazio-bide bateko bide eta zubitxoak ageri dira.

— Burdin Aro eta Erdi Aroko okupazio mailak eskaintzen dituen Astulezko Gaztelua izeneko bizilekuaren miaketa eta datuen zehaztapena.

— Revisión de la zona de paso entre Barrón y Atiega surcada por un arroyo. Aunque la zona se presta a que existan asentamientos antiguos, los resultados fueron infructuosos en el tramo revisado.

— Revisión de varios términos en el pueblo de Nograro con la localización de un posible asentamiento de Época Romana.

— Erreka batek zeharkatzen duen Barron eta Atiega arteko igarobidearen miaketa. Zonaldean antzinateko finkamenduak egon daitezkeen arren, azterturiko eremuan ez genuen emaitza positiborik jaso.

— Nograroko hainbat lekuren miaketa. Erromatarren garaiko finkamendu posible bat aurkitu da.

### A.1.3.5. **Yacimientos de la Edad del Hierro**

Dirigida por Armando Llanos Ortiz de Landaluce.
Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

Se llevaron a cabo con dos fines, principalmente. Seguir completando el mapa alavés de yacimientos de la Edad del Hierro, independientemente de los que con motivo de estos trabajos fueron apareciendo y que engrosaron la Carta Arqueológica de Álava, y que en algunos casos fueron detectados en el proceso de realización de trabajos de Obras Públicas, informándose inmediatamente al Museo de Arqueología de Álava, ante la urgencia que podía tener una posible intervención en ello.

De todas estas salidas pueden destacarse el hallazgo de puntos de interés arqueológico en las obras que, con motivo de las zanjas de captación de aguas para Vitoria, cruzaron grandes extensiones de terreno. En la zona entre Nanclares de la Oca y Montevite, un punto con cerámicas medievales y otro con sílex y fragmentos de cerámicas modeladas de pastas carbonosas. Próximo al pueblo de Foronda, unos posibles fondos de cabana, con grandes estructuras excavadas en el terreno.

En obras de saneamientos, en el pueblo de Peñacerrada, escombros con materiales arqueológicos medievales y restos óseos humanos.

Como nuevos yacimientos, en la zona meridional de Álava, en la Rioja, se detecta un nuevo conjunto de cuevas artificiales, en el término de Gobate y Seikoba, así como lagares rupestres que posiblemente pueden ponerse en relación con estas cuevas. Junto a todo ello una cueva artificial con aspecto de lugar de culto (iglesia) sobre el cauce del río Rueda.

Una serie de Indicios, en la zona de San Martín de Remelluri, tanto arqueológicos —cerámicas de la Edad del Hierro— como de tierras cenicientas y carbonosas así como restos humanos quemados, parecen indicar la correspondencia con una posible necrópolis de incineración. Conviene recordar que en sus proximidades se alza el poblado de La Nava.

### A.1.3.5. **Burdin Aroko aztarnategiak**

Armando Llanos Ortiz de Landalucek zuzendua.
Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

Helburu nagusia bikoitza zen: Burdin Aroko aztarnategi arabarren mapa datu berriez osatzea, eta aurrez aurkituriko aztarnategietan lanean ari ginela aurki genitzakeen aztarnategi berrien albiste ematea, Arabako Arkeologi Kartan katalogatzeko. Ikerturiko aztarnategi hauek Herri Lanetan ari ziren langileek aurkituak dira zenbaitetan: aurkikuntza egin eta berehala informazioa bidaltzen zaio Arabako Arkeologi Museora eta honek erabakitzen du nolako interbentzioa burutu behar den.

Aurkikuntza guzti hauen artean honakoak nabarmenduko genituzke: Gasteizko ur hornidurarako obretan, eremu luzeak zeharkatzen duten zangetan, agertu diren arkeologi gune batzu; Langraitz eta Montebite artean agertu diren bi gune, Erdi Aroko zeramikak dituena bata eta sukarriz nahiz karbono pastaz modelaturiko zeramika dituena bestea eta, azkenik, Foronda herritik hurbil agertu diren txabola hondoak, lurrean induskaturiko egitura handiak.

Urizaharran garbiketa lanetan ari ginela, Erdi Aroko arkeologi materialak eta giza hezurrak agertu ziren hondakinen artean.

Arabako Hegoaldean, Errioxan, koba artifizialak aurkitu ditugu Gobate eta Seikoba artean. Honez gainera koba horiekin erlazionaturik zitezkeen harrizko dolareak ere agertu dira. Guzti honekin batera kultu lekua (eliza) zatekeen koba artifizial bat aurkitu dugu Rueda ibaiaren gainean.

Erremelluri-San Martinen aurkituriko zantzu batzuk, aztarna arkeologikoak —Burdin Aroko zeramikak— eta hauts nahiz karbono lurrekin batera erretako gorpuak, eremu haietan errausketa nekropoli bat bazegokeela adierazten digute. Gogora dezagun inguru haietan ageri direla La Nava bizilekuaren hondakinak.

También en el alto de Casa Pangua, en el enclave de Peciña, se recogen abundantes cerámicas así como algunas piezas de sílex. Por sus características parece corresponder a un asentamiento del tipo de Bronce de Meseta.

Asimismo en la barrancada que desciende de Tabuerniga, en la proximidad de Labastida, y en un cerro aislado y bien defendido naturalmente, se recogen fragmentos cerámicos. Parece tratarse de un pequeño asentamiento del Bronce.

Estos trabajos se han realizado dentro de los programas del Arkeologiarako Arabar Institutua. Instituto Alavés de Arqueología y han contado con una pequeña aportación económica de la Diputación Foral de Álava.

Peziñako Casa Pangua gainean ere zeramika modelatuak eta sukarri pieza batzu aurkitu dira. Ezaugarrien arabera, Goi-lautadako Brontze Aroko finkamendu baten aurrean geundeke.

Halaber, Tabuernigatik jaisten den sakanean, Bastidaren inguruetan, zeramika puskak jaso dira, muino isolatu eta ongi babestu batean. Brontze Aroko finkamenduaren trazak ditu.

Lan hauek Arabako Arkeologi Institutuaren programaren arabera burutu dira eta Arabako Foru Aldundiaren diru laguntza ttiki bat izan dute.

### A.1.3.6. Yacimientos de época romana de la Llanada oriental

Dirigida por Aitor Iriarte Cortázar.
Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

Coincidiendo con las tareas de labranza, hemos realizado en los últimos meses de 1990 la primera campaña —subvencionada por el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Álava— de cuatro que proyectamos dedicar a prospectar los yacimientos de época romana de la Llanada Oriental Alavesa.

En este resumen nos limitaremos únicamente a comentar los resultados positivos, que han sido escasos: situar y delimitar los yacimientos de Angostina (Alegría) y Ozabal (Guereñu).

ANGOSTINA.-Está emplazado en una ladera de pendiente muy suave, orientada al sur, y situado entre el camino llamado «de los romanos» (presumiblemente el Recorrido 34 del Itinerario de Antonino) y el arroyo Reganzubi; ocupando un pequeño círculo de unos 50 m. de diámetro.

Los materiales recuperados han sido escasos, mereciendo únicamente ser citados los ladrillos, correspondientes a suelos y paredes de una instalación termal, y la T.S.H., con formas (7, 15/17, 35, 36, 29, 37), pastas y engobes encuadrables en la segunda mitad del siglo I d.C. o en el siglo II, como máximo. Las manchas de mortero de cal en varios fragmentos, utilizados como áridos en el hormigón, fechan en el mismo período la construcción.

En conclusión, nos encontramos ante un yacimiento pequeño, probablemente constituido por un solo edificio

### A.1.3.6. Erromatarren garaiko aztarnategiak Ekialdeko Lautadan

Aitor Iriarte Cortazarrek zuzendua.
Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

1990eko azken hilabeteetan, nekazal lanen garaian eta Arabako Foru Aldundiaren Kultur Sailak subentzionaturik, burutu dugu Arabako Ekialdeko Lautadan erromatarren garaiko aztarnategiak miatu nahiz bideratu ditugun lau kanpainetako lehena.

Laburpen honetan emaitza positiboak baizik ez ditugu isladatuko eta hauek urriak izan dira: Angostina (Dulantzi) eta Ozabal (Gereñu) herriguneetako aztarnategiak kokatu eta mugatu ditugu.

ANGOSTINA.—Hegoaldera begira dagoen malda zelai xamarrean dago, «erromatarren bidea» deiturikc galtzadaren (Antoninoren Galtzadaren 34. Ibilbidea seguruenik) eta Erreganzubi errekaren artean. 50 m diametro duen zirkulu ttikia osatzen du.

Aurkituriko materialak urriak dira. Aipagarri ditugu adreiluak, termategi bateko paret eta zoruari zegozkiokeenak, eta T.S.H., moldedunak (7, 15/17, 35, 36, 29, 37), pastak eta koadramenduak, K.o. I. mendearen bigarren erdialdekoak eta, gehienaz, II. mendekoak diratekeenak. Zati batzuetan ageri diren kare-morterozko orbanek, hormigoian erabiliak, eraikuntza garai horretakoa zela salatzen digute.

Bukatzeko zera esan dezagun: aztarnategi ttiki baten aurrean gaude, Goi Inperioaren garaiko terma eraikuntza

con termas, de cronología exclusivamente Altoimperial. La pequeñez del complejo parece permitir descartar «a priori» su identificación con un establecimiento tipo «villa», y podría relacionarse mejor con algo, tan controvertido a nivel formal, como una posada o «mansio» junto a la calzada. Por distancias y por la desaparecida ara de Henaio, cabría situar allí a Tullonio si no fuera por la pequeña extensión del yacimiento y su no perduración en el Bajo Imperio. No obstante, el que Angostina no sea propiamente o la totalidad de Tullonio no implica que no se situara en Alegría, ya que aún no hemos prospectado todos los lugares idóneos para emplazar un yacimiento romano en los alrededores.

OZABAL.-Está situado en una suave ladera, orientada al noroeste, junto al arroyo Luzkando. Consiste en tres manchas de tierra oscura, de forma vagamente triangular y unos 2.500 $m.^2$ de extensión cada una, a las que aparecen asociados los materiales y bastantes lajas de cayuela que pudieran proceder de estructuras.

El número de materiales (básicamente cerámicos) recogidos ha sido apreciable, si bien la mayor parte de ellos están rodados. Se pueden distinguir netamente dos grupos: el integrado por cerámica romana y el integrado por cerámica medieval.

*Cerámica romana:* El tipo más abundante es la T.S.H., predominan las formas (1, 30, 35, 36, 37 A y 37 B), pastas, engobes y decoraciones antiguas (segunda mitad del siglo I, siglo II d.C). Algún fragmento de borde y panza de 37 A se podría llevar sin problemas hasta el siglo III d.C. y así enlazar con el único fragmento de T.S.H.T. aparecido, un borde de 37 A.

La cerámica común es más inexpresiva. Adscribibles a un contexto tardío resultan el borde vuelto de una olla y el perfil casi completo de un plato, ambos de cerámica de cocina.

*Cerámica medieval:* Revueltos con los materiales romanos aparecen fragmentos de tejas curvas y de cerámica medieval sin vidriar, datables según Iñaki García Camino (a quien agradecemos su colaboración) en los siglos XII-XIII d.C.

Se trata, en conclusión, de un yacimiento de cierta extensión, pero de poca densidad, quizá un conjunto de construcciones de escasa entidad, con una cronología que abarca todo el período romano en la zona (con más énfasis en el Alto Imperio); tras un hiato se le superpondría otra aldea o casa medieval.

Resulta curioso que el hallazgo de armas y un broche de cinturón, dados por visigodos, en el mismo lugar en 1967, quede descolgado, sin materiales contemporáneos asociables. En cualquier caso, no parece factible plantear la existencia de una necrópolis, a la vista también de la total ausencia de restos humanos (no así de fauna).

bat seguruenez. Multzoa hain ttikia izaki, «villa» antzeko finkamendu baten aurrean egon gintezkeelakoa baztertzen dugu aldez aurretik. Gaitzada ondoko ostatu edo «mansio» delakoa izango zatekeen, nahiz honelakorik zehaztea batere erraza ez izan. Aldeak neurtuta eta desagerturiko Henaioren aldarearen kokalekua kontutan hartuta, *Tullonio* bertan egokituko genuke aztarnategiaren neurriak hain ttikiak ez balira eta Behe Inperioko materiala agertu izan balitz. Dena den, Angostina osotasunean nahiz zati batean Tullonio ez izateak ez du Dulantzin ez zegoela esan nahi. Izan ere, ez ditugu oraindik aztarnategi erromatarra aurki litekeen inguru guztiak miatu.

OZABAL.—Iparrekialdera begira dagoen malda zelai xamarrean dago, Luzkando errekaren ondoan. Lur iluneko hiru orban ageri dira, definiziorik gabeko triangeluak osatuz, 2.500 m -ko azalerakoa bakoitza. Bertan beste egitura batzuetatik datozkeen material eta arbelezko harzabalak ageri dira.

Jasotako material kopurua (zeramika batez ere) handi xamarra da, gehienak mugituak badira ere. Bi talde bereizten dira argi eta garbi: zeramika erromatarra eta Erdi Aroko zeramika.

*Zeramika erromatarra:* T.S.H. dugu molde nagusia (1, 30, 35, 36, 37 A eta 37 B moldeak). Pasta, engobe eta antzinako dekorazio moldeak (K.o. I. mendearen bigarren erdialdekoak eta II. mendekoak). 37 A moldeko ertz eta gerri zati batzu K.o. III. mendekoak ere izan zitezkeen. Honenbestez T.S.H.T. moldeko ageri den zatiki bakarrekin (37 A-ko ertza) lotuko genuke.

Zeramika arrunta kokatzea zailagoa da. Garai berantiarrekoak izan daitezke eltze bateko ertz irtena eta plater baten perfila ia osoa, sukalde zeramika obrak biak.

*Erdi aroko zeramika:* Material erromatarrekin nahasian agertu dira teila kurboak eta Erdi Aroko zeramika zatikiak, beiratu gabeak. Iñaki Garcia Caminoren arabera (eskertzen diogu emaniko laguntza) K.o. XII-XIII. mendekoak dira.

Esan dezagun, bada: aztarnategi handi xamarra bada ere dentsitate urrikoa da, eraikuntza xumeek osaturiko multzoa agian. Kronologiari dagokionez, lurraldeko garai erromatar guztietako materialak aurkitu ditugu (Goi Inperiokoak nagusi halere). Etenaldi baten ondoren, baserri edo etxe bat egongo zen bertan Erdi Aroan.

Harrigarria da 1967an bertan aurkitu ziren armak eta gerriko orratza, bisigodoak batzuren aburuan, garai bereko lagunik gabe egotea. Nolanahi ere, ez dirudi nekropolirik egon zitekeenik bertan giza hondakinik ez baita aurkitu (bai ordea fauna hondakinak).

## A.1.3.7. **Fortificaciones medievales**

Dirigida por Javier Fernández Bordegarai.
Subvención propia.

Desde el pasado mes de abril de 1990 hemos venido realizando, con permiso de la Dirección de Patrimonio Histórico Artístico del Gobierno Vasco, una prospección visual en fortificaciones medievales de nuestra Comunidad para el proyecto de investigación que, sobre la frontera navarro-castellana en los siglos XI y XII, iniciamos en 1989. En un primer momento estamos trabajando en las comarcas de la Montaña Alavesa y el Condado de Treviño, pero esperamos, en el futuro, poder abarcar todo el territorio del País Vasco.

La problemática de los castillos (no la de las torres y casas fuertes, fenómeno algo posterior en el tiempo), a pesar del insignificante interés que ha despertado en nuestra arqueología medieval, reviste una magnitud mucho más importante de la esperada cuando nos planteamos realizar este estudio. Además de los castillos más o menos conocidos y que son bastante numerosos, abundan en nuestra geografía topónimos que aluden a pequeñas construcciones de defensa y guarda que también es preciso comenzar a valorar.

Estas posibilidades se ven sin embargo, limitadas por el deplorable estado de conservación en que se encuentran la mayoría de estos yacimientos, algunos de los cuales poseen características francamente espectaculares.

Entre éstos debe destacarse sin duda, el poblado fortificado de Portilla, rodeado de una impresionante muralla en bastante buen estado y protegido en su lado meridional por una escarpada peña en cuya cima se asienta el castillo, muestra de una destreza arquitectónica poco habitual, que combina la talla de la roca natural con elementos de fábrica, en un lugar de difícil acceso. Estos restos y su relevancia histórica (importancia en la defensa del territorio alavés frente a los castellanos, en el siglo XII, siendo incluso sede de una tenencia navarra) lo hacen fundamental para nuestra investigación, motivo por el cual esperamos poder realizar en breve una actuación más específica en él.

Además podemos destacar, entre otros, los de Zaldiaran, Treviño, Tuyo, Ocio, La Puebla de Arganzón y Marquínez, este último el único excavado en Álava, y sólo parcialmente (por J.M. Barandiaran, en 1967).

Con la continuación de esta actividad esperamos al menos, rescatar del olvido una parte tan significativa e importante de nuestro patrimonio arqueológico medieval como son los castillos, cuya existencia y problemática ha de ser conocida e investigada.



## A.1.3.7. **Erdi Aroko Gotorlekuak**

Javier Fernandez Bordegaraik zuzendua.
Berak subentzionatua.

1990eko Apirilean hasita, eta Eusko Jaurlaritzaren Historia eta Arte Ondare Zuzendaritzaren baimenaz, Komunitateko gotorleku ertarotar guztien inguruan miaketak burutu ditugu, Nafarroa eta Gaztelaren artean XI. eta XII. mendeetan zegoen muga zehaztu nahirik 1989an hasi ginen ikerlana osatzeko xedean. Hasiera batean, Arabako Mendialdean eta Trebiñoko Konterrian ari gara lanean. Etorkizunean Euskal Herri osora zabaldu nahi genuke ikerketa.

Gazteluen garrantzia (eta alde batera uzten ditugu geroagokoak izan ziren dorre eta dorretxeak) hasieran uste baino handiagoa da, nahiz Erdi Aroko arkeologian beharreko inportantziarik ez zaion eman. Hobeki nahiz okerrago ezagutzen ditugun gazteluez gainera, eta ez dira gutxi, ugari dira gure geografian babes edota zainketarako eraikuntzen erreferentzia ematen diguten toponimoak. Baloratu egin behar dira datu hauek.

Posibilitate hauek murriztu egiten dira, ordea, aztarnategi hauetako gehienak egoera guztiz tamalgarrian daudelako. Aztarnategi batzuen ezaugarriak harrigarriak dira benetan.

Hauen artean Portilla izeneko gotor-herria bereizi beharra dago inola ere. Egoera nahiko onean ageri den murru izugarri batek inguratzen du bizilekua. Haitz batek babesten du gotorlekua hegoaldetik. Haitzaren gainean altxatu zuten gaztelua, trebezia handia erakusten duen arkitektur obra. Sarrera zaileko lekune batean eraikia, haitz naturala eta eraikuntz elementuak ageri dira nahasian. Hondakin hauek tuntsezko ereferentzi-puntua bihurtu dira gure ikerketan, duten garrantzi historiko handia dela eta (leku hau guztiz garrantzitsua izan zen XII. mendean, arabarrek Gaztela aurrean zuten babesleku inportanteenetakoa bait zen. Bertan egokitu zen gudal-talde nafar bat). Lan berezia burutuko dugu bertan aurrerantzean.

Honako gotorleku hauek bereiziko genituzke, aurrekoaz gainera: Zaldiaran, Trebiño, Tuio, Ozio, La Puebla de Arganzon eta Markinez. Azken hau da Araban induskatu den bakarra, ez osotasunean gainera (J.M. Barandiaran, 1967).

Lan honi jarraia emanez gure Erdi Aroko ondare arkeologikoko osagai berezi bezain garrantzitsua eman nahi genuke ezagutzera: gaztelua. Haren izate eta arazoak ezagutu eta ikertu behar direlakoan gaude.

Torreón Oeste del Castillo de Portilla.



Portillako Gazteluko Mendebaldeko Dorrea.

## A.1.4. *OTRAS INTERVENCIONES ARQUEOLÓGICAS*

### A.1.4.1. **Limpieza y Cartografiado de la muralla de Iruña**

Dirigido por M. Luisa Palenques i Salmerón.
Subvencionado por la Diputación Foral de Álava.

En este año se ha llevado a cabo la segunda fase de los trabajos de limpieza y cartografiado de la muralla de Iruña, abarcando un amplio espacio, sobre todo en las tareas de limpieza, gracias a la colaboración de los alumnos de la Casa de Oficio de Auxiliares de Arqueología, a los cuales agradecemos el interés mostrado.

El objetivo final de este proyecto es el de documentar en la mayor medida posible este yacimiento, para lo cual se pretende lograr una representación gráfica con una base digital que nos permita reproducir el monumento de forma tridimensional y a cualquier escala deseada.

Las ventajas de un trabajo de este tipo son evidentes: 1) Para su estudio, de cara a un análisis de estructuras, técnicas constructivas y estudio estratigráfico de los muros. 2) Para su Conservación, dado que la limpieza del monumento facilita la observación directa y completa del mismo, al tiempo que su cartografía tridimensional permite hacer un estudio comparado de la evolución de las estructuras, como desplazamientos de estructuras o derrumbe de algunas de sus partes.

3) Para su restauración. El disponer de una cartografía tridimensional, con una alta precisión y reproducible a cualquier escala, facilita en gran medida la posible restauración del monumento en el caso que ello fuera necesario por algún motivo.

4) Finalmente, la cartografía de éste, como de cualquier otro yacimiento constituye un elemento básico dentro de los bancos de datos, facilitando la protección del yacimiento. Sobre todo cuando esta es digital.

Con la intervención de esta campaña se ha logrado abarcar una buena parte del encintado, de forma que se han agilizado mucho los trabajos, considerando que pronto podrán darse los resultados definitivos de este trabajo, al que pretendemos que acompañe un capítulo de documentación.



## A.1.4. *BESTE IHARDUERA ARKEOLOGIKO ZENBAIT*

### A.1.4.1. **Iruñako Harresiaren Garbiketa eta Kartografiaketa**

M. Luisa Palenques i Salmeronek zuzendua.
Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

Aurten Iruñako harresia garbitu eta kartografiatzeko lanen bigarren fasea burutu da, eremu handia hartuz, batez ere garbiketa lanei dagokienean, Arkeologia Laguntzaileen Lanbide Etxeko ikasleen lankidetzari esker, erakutsitako interesa eskertzen diegularik.

Proiektu honen azken helburua aztarnategi hori ahalik eta gehien dokumentatzea da, oinarri digitalezko irudikapen grafikoa lortzearren, monumentu hau hiru dimentsiotan eta nahi den eskalan erreproduzitu ahal izateko.

Gisa honetako lan baten abantailak begi bistakoak dira: 1) Ikerketari begira, harresienegiturak, eraikuntzteknikak eta estratigrafi azterketa burutu ahal izateko. 2) Monumentuaren kontserbazioari begira, haren garbiketak behaketa zuzena eta osoa errazten bait du eta, aldi berean, hirudimentsioko kartografiak egituren bilakaeraen azterketa konparatua bideratzen duelako, hala nola egitura batzuren desplazamendua edo zati batzuren amiltzea.

3) Haren berriztapenari begira, doitasun handiko eta edozein eskalatan eman daitekeen hirudimentsioko kartografia gure esku izateak, hein handi batean, monumentuaren berriztapena errazten du, edozein dela kausa, hori egitea premiazkoa balitz.

4) Azkenik, haren kartografia, beste edozein aztarnategirena bexalaxe, datu-bankuen funtsezko elementua dugu, modu horretara aztarnategiaren babesa errazturik gertatzen delarik. Batez ere halakoa digitala denean.

Kanpaina honetako interbentzioaren bidez xingoladun barne zati handia hartu ahal izan da eta lanak halako moldez aurreratu dira non laster lan honen behin-betiko emaitzak zabaldu ahal izango ditugun, berauek dokumentazio-kapitulu batez hornitu nahiko genituzkeelarik.

# A.2. BIZKAIA / BIZKAIA

## A.2.1. *EXCAVACIONES*

### A.2.1.1. **Cueva de Arenaza I**
(San Pedro de Galdames)

XVIII Campaña de excavaciones.
Dirigida por Juan María Apellaniz.
Subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia.

*Objetivo*

La XVIII campaña de excavaciones se propuso continuar en el conocimiento de la secuencia cultural de la población de cavernas que está representada en el yacimiento. Para ello se continuó profundizando en el mismo Sector (VII) y en los mismos cuadros que en la campaña anterior, los cuales habían debido ser reducidos por razones financieras y burocráticas.

*Realización*

La campaña tuvo lugar en la segunda mitad del mes de julio y en ella actuaron D. José Antonio Fernández Lombera como subdirector y miembros de la Escuela práctica de Arqueología de la Universidad de Deusto como colaboradores.

*El lecho 9*

La estructura sedimentaria del lecho recuerda muy de cerca a la del precedente. En la zona más próxima al

## A.2.1. *INDUSKETAK*

### A.2.1.1. **Arenaza I Lezea**
(Galdames Beitia)

XVIII. Indusketa kanpaina.
Juan Maria Apellanizek zuzendua.
Bizkaiko Foru Aldundiak subentzionatua.

*Helburua*

XVIII. indusketa kanpaina honen xedea zera zen, aztarnategi horretako harpe-populazioaren kultur sekuentziaren ezagupena sakontzea. Hartarako lehengo kanpainako Sektore berean (VII) eta lauki berberetan sakontzen jarraitu zen, berauek arrazoi finantzario eta burokratikoengatik murriztu behar izan zirelarik.

*Errealizazioa*

Kanpaina Uztailaren bigarren erdian burutu zen, bertan Jose Antonio Fernandez Lombera jauna zuzendariordea izanik eta Deustuko Unibertsitateko Arkeologia Praktika-Eskolako kideak kolaboratzaile gisa aritu zirelarik.

*9. Geruza*

Geruza honetako sedimentu-egitura aurrekoaren antzekoa dugu oso. Sarrerako deiekzio-konotik hurbilen

cono de deyección de la entrada el suelo está formado por cantos redistribuidos por pisoteo y la zona más alejada del cono y más próxima al aliviadero del fondo de la saleta fondos de encharcamiento. El más sólido bajo el anterior ha sido tomado como base del lecho. Ha ofrecido la ventaja de que se extendía hasta una zona muy próxima a la base del cono con lo que puede decirse que el lecho resultaba homogéneo, es decir, razonablemente contemporáneo el material de su relleno.

Arqueológicamente hablando la distribución de los materiales recuerda también directamente al lecho anterior (8). El manto de fragmentos de hueso de buen tamaño continua ocupando los mismos cuadros S2, S7 y Ñ2, Ñ7.

El resto de materiales sigue una ordenación aleatoria. Sólo en la zona más profunda de la pequeña cubeta se advierte una cierta menor densidad. Como es lógico los huesos se resienten de un estado constante de inundación, lo que es perceptible en la pérdida de colágeno.

*Características culturales*

Se advierte un cierto indicio de cambio en la decoración de algunas cerámicas a la vez que una disminución de las que hasta este momento eran más habituales. Las primeras son motivos a base de líneas convergentes incisas que cruzan la mayor parte de la panza del vaso. A juzgar por los pocos fragmentos conservados se podría compararlos con algunos aparecidos en el covacho de Los Husos (Elvillar, Álava). Allí se trataba de vasos troncocónicos unas veces, ligeramente ovoideos otras. Hay un caso en el que la organización de las incisiones se hace en forma de guirnaldas a partir de una leve carena media. La tendencia fundamental sin embargo es la de organizarse de manera convergente y a veces un poco cruzada. La incisión suele ser un poco diferente. Unas veces más profunda y ancha, otras más leve, menuda, estrecha y ligera, pero en el fondo muy semejantes entre sí.

En cuanto a las decoraciones más habituales, se puede decir que prácticamente desaparecen las combinaciones de impresión e incisiones o se reducen a uno o dos fragmentos, lo mismo que las que hasta ahora he denominado seudoboquique.

Acompaña al conjunto una punta de flecha foliácea.

*Aproximación cronológica y cultural*

Puede decirse que para comprender la naturaleza cultural del lecho habría que acudir a la secuencia de Los Husos. Las decoraciones aparecen en los niveles

aurkitzen den zonaldean, zorua zapalketaz finkaturiko harkoskoz moldatua da, konotik urrutien eta sala-hondoko hustubidetik hurbilen den zonaldeak istil-hondoak dituelarik. Aurrekoaren azpiko sendoena, geruza-hondotzat hartu dugu. Abantaila bat zuen, kono-hondotik oso hurbileko zonalde bateraino hedatzen bait zen eta, ondorioz, geruza oso homogenoa gertatzen zela esan daiteke, bertan aurkitzen den materiala garai beretsuko dela alegia.

Arkeologiaren ikuspegitik, materialen kokapenak aurreko geruza dakarkigu gogora zuzen-zuzenean (8). Hezur nahiko handiz osaturiko mantuak beti ere lauki berberak hartzen ditu: S2, S7, Ñ2 eta Ñ7.

Gainerako materialek ez dute ordena jakinik agertzen. Kubeta txikiko zonalde sakonena dentsitate txikiagokoa dela antzeman daiteke soilki. Logikoa denez, hezurrak uretan etengabe egoteak bere ondorioak ekarri ditu, kolagenoa galtzen dutela alegia.

*Kultur ezaugarriak*

Zenbait zeramikatan halako dekorazio-aldaketaren zantzuak antzematen dira, ordura arte ohizkoak zirenak urritzen hasten direlarik. Lehenengo motiboak ontzi sabeleko zatirik handiena gurutzatzen duten lerro konbergente ebakiak dira. Kontserbatu diren zati urriengatik, Los Husos (Billar, Araba) lezean agerturiko zenbaitekin konpara daitezke. Kono-enbor itxurako ontziak ziren hangoak, zenbaitek arraultze antzeko itxura zutelarik. Kasu batean, lore-uztai itxurako ebakidurak erdiko gila leunetik abiatzen dira. Funtsezko joera, ordea, konbertzengiazko egitura moldatzekoa da, zenbaitetan hein batean gurutzatua. Ebakidurak badu desberdintasunik. Batzutan sakonago eta zabalera handiagokoa, bestetan axalekoago, xeheago, estuago eta arinagoa dateke, baina beti ere elkarren antza handia dute.

Ohizko dekorazioei dagokienez, inprimaketa eta ebakiduren nahasketak desagerten direla esan daiteke, zati bat edo bitan izan ezik, orain arte «pseudoboquique» deitu ditudanen antzera.

Guzti honekin batean, orriantzeko gezi-punta bat azaldu da.

*Kronologia eta kulturari buruz*

Geruzaren kultur izaera ulertzeko Los Husos-eko sekuentziara jo beharko genuke. IIB3, IIB2 eta IIB1 mailetan agerturiko dekorazioak Antzinako Brontze eta Kan-

IIB3, IIB2 y IIB1, que corresponden a un período en torno al Bronce Antiguo y al Campaniforme tardío. En términos de la secuencia de Arenaza puede indicar que se ha sobrepasado un período identificable con el Bronce Medio arcaizante como el que se puede ver aquí y un período más claramente Bronce Antiguo, que no estaría lejos del Campaniforme tardío. En todo caso las dos secuencias coinciden en situar a las puntas de hueso de doble sección en una etapa anterior. De la importancia e interés de estas puntas para establecer comparaciones con la secuencia de Los Husos ya hablé a propósito de los materiales del lecho 7.

En cuanto a una aproximación cronológica habría que decir que con todas las reservas imaginables se podría situar el lecho en torno a 1.800 a.C. aproximadamente.

A.2.1.2. **Cueva de Lumentxa**
(Lekeitio)

Vil Campaña de excavaciones.
Dirigida por José Luis Arribas.
Subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia.

Los trabajos desarrollados durante el mes de septiembre, han continuado el levantamiento de las ocupaciones de la Edad del Bronce (Nivel II), en una extensión de 25 metros cuadrados. Las actividades se han centrado en la excavación del lecho 9.

El nivel II, ya definido en anteriores ocasiones, está formado por un paquete de arcillas muy compactas de formación holocénica y espesor variable, en el que se han alojado fragmentos calizos de diferentes tamaños. La aportación antrópica se constata, aparte de por los restos que conforman el registro arqueológico, por aislados cantos rodados de arenisca y por lentillas de carbón y ceniza que testimonian actividades de combustión en el interior de la cavidad

Uno de los principales objetivos de esta campaña ha sido levantar en extensión el enterramiento localizado el año anterior en el cuadro 28G. La excavación del lecho 9 ha permitido recuperar 30 piezas del esqueleto de un adulto de complexión robusta en un estado de conservación muy aceptable. El cadáver fue depositado directamante sobre el suelo de la cavidad, ya que no hemos detectado ningún acondicionamiento de éste, sistema de enterramiento frecuente en las cuevas sepulcrales del País Vasco. Esto ha facilitado su dispersión, aunque en un área relativamente pequeña (de unos 4 metros cuadrados) y la desconexión anatómica de los huesos. Se

paniformearen inguruko garaietan koka daitezke. Arenazako sekuentziari gagozkiola, Brontze Ertain zaharra eta, Kanpaniforme berantiarretik oso urrun ez datekeen erabateko Antzinako Brontze Aroa hartuko lituzkeen garaia gainditu dela esan daiteke. Nolanahi den, bi sekuentziok bat datoz sekzio bikoitzeko hezurrezko puntak aurreko garai batean kokatzerakoan. Los Husos-eko sekuentziarekin konparazioak egiteko punta horiek duten garrantzi eta intereresgarritasunez hitz egin nuen 7. geruzako materialez iharduterakoan.

Hurbilketa kronologikoari dagokionean, daitezkeen erreserba guztiekin, geruza hau K.a. 1800 inguruan kokatuko genuke.

A.2.1.2. **Lumentxa Lezezuloa**
(Lekeitio)

VII. Indusketa kanpainia.
Jose Luis Arribasek zuzendua.
Bizkaiko Foru Aldundiak subentzionatua.

Irailean zehar burutu diren lanetan Brontze Aroko (II. Maila) finkamenduak azaleratzen jarraitu dugu, 25 metro karratuko azaleran. Gure iharduerak 9. Geruzaren indusketa lanetara bildu dira.

Aurreko ekitaldietan definituriko II. maila buztin-pakete trinkoak osatua da, holozenos aroan moldatuak eta lodiera aldakorrekoak, non neurri desberdineko kararri zatiak kokatuak diren. Ekarpen antropikoa, erregistro arkeologikoa osatzen duten hondakinez gainera, hareharrizko errekarri isolatuetan egiazta daiteke, bai eta ikatz eta errauts zatikietan, harpe barnean egindako errekuntza-egintzen lekuko gertatzen direnak.

Kanpaina honetako helbururik garrantzitsuenetako bat zera zen, aurreko urtean 28G laukian aurkituriko ehorzlekua jasotzea. 9. Geruzaren indusketari esker, kontserbazio-egoera ona agertzen zuen pertsona heldu baten hezurduraren 30 pieza bildu ahal izan dira. Gorpua lezezoruaren gainean zuzenean utzia zen, inolako moldaketarik ez bait dugu hauteman, Euskal Herriko hilobi-lezeetan maizerabilitakoehorzketa-sistemaberau. Sistema honek hezurren barreiadura ekarri du, azalera aski mugatuan hala ere (4 metro karratu inguru), bai eta beraien arteko loturarik eza. Hezurduraren pieza nabariak falta dira, agian On Jose Migel Barandiaranek 1963an azter-



Lumentxa. Lecho 9 (vista delantera).

Lumentxa. 9. Geruza (Aurreko ikuspegia)

echan en falta piezas significativas del esqueleto, quizás algunas exhumadas en la excavación que D. José Miguel de Barandiarán practicó en 1963 en un área contigua a la que estamos trabajando, (como se da cuenta en su memoria), o subyacentes a lo excavado

En el área del enterramiento han sido recuperados dos objetos de hueso trabajado y un número inusual de fragmentos de cerámica, que corresponde a vasos lisos de forma ovoidea y diferentes tamaños. Parece rezonable suponer que pueda tratarse del ajuar que acompañaba al difunto.

tzen ari garenaren ondoko zonaldean azaleratuak (bere txostenean aditzera ematen denez), edo agian induska-turikoaren azpitik aurkitzen direnak.

Ehorzketa eremuan hezur landuzko bi objektu eta ez-ohizkoak diren zeramika zatiak, neurri desberdin eta arraultze itxurako ontzi leunei dagozkienak. Hildakoare-kin batean ezarritako tresneria dela pentsatzeari arra-zoizkoa deritzogu.

## A.2.1.3. Asentamiento romano de Forua
(Forua)

VIII Campaña de excavaciones.
Dirigida por Ana Martínez Salcedo y Mikel Unzueta.
Financiada por la Diputación Foral de Bizkaia

Entre los objetivos para este año 1990 figuraban la determinación de la planta de la estructura 4, localizada en la anterior campaña y que mencionábamos en nuestra anterior comunicación para ARKEOIKUSKA, así como la determinación de la presencia o no de más estructuras en el sector 2. Por último se pretendía la conclusión en su excavación de la estructura 3, en sus recintos exteriores y en su lado oeste exterior.

Estos trabajos se han llevado a cabo entre los meses de agosto de 1990 y enero de 1991, mediante Contrato de Servicios por parte de la Diputación Foral de Bizkaia a la empresa Arkeon. Estudios de Patrimonio Histórico, Artístico y Arqueológico.

Comenzaron los trabajos con la realización de una serie de sondeos con el fin de conocer, por un lado, a que profundidad y en que extensión se desarrollaba la estructura 4 y, por otro, determinar la presencia o no de otros restos arquitectónicos en las zonas aún no excavadas de este sector II.

Podemos decir que este conjunto de sondeos ha permitido comprobar la presencia de evidentes elementos arqueológicos en zonas próximas o que guardan alguna relación con la estructura 4 y que, con toda seguridad, forman parte de ella. Este es el caso de seis de ellos. Por lo que se refiere a los demás su comportamiento es desigual presentando nueve sondeos un estrato arqueológico muy débil formado por areniscas, cerámicas rodadas, etc. que aparecen de modo disperso. Todos los demás han resultado estériles.

Así pues salvo en las zonas más próximas a la localización, hecha en el año 1989, de la estructura 4, los elementos arqueológicos detectados en los sondeos son muy débiles y, algunos casos, inexistentes.

Por lo tanto y, en virtud de los resultados obtenidos podemos decir que no existen indicios suficientes como para asegurar la presencia de este sector II de otras estructuras, además de las ya conocidas.

En cuanto a la excavación de la estructura 4 el análisis de los sondeos efectuados determinó cual era, en esta zona, la potencia y naturaleza de los estratos situados entre la superficie y el nivel romano. Así, tras comprobar que éstos eran arqueológicamente estériles dimos paso a su levantamiento recurriendo para ello al empleo

## A.2.1.3. Foruako finkamendu erromatarra
(Forua)

VIII. Indusketa kanpaina.
Ana Martinez Salcedo eta Mikel Unzuetak zuzendua.
Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatua.

1990eko urterako helburuen artean, 4 egiturako planta zehaztea zegoen, aurreko kanpainean aurkitu eta Arkeoikuskarako komunikazioan aipatua genuena, bai eta II. sektorean egitura gehiagoren presentzia ikertzea. Azkenik, 3 egituraren indusketa amaitu nahi genuen, barneko barrutiei eta ekialdeko kanpoaldeari dagokienean.

Lan horiek 1990eko Abuztuaren eta 1991ko Urtarrilaren artean burutu dira, Bizkaiko Foru Adundiak Arkeon. Historiako, Artezko eta Arkeologiko Ondareen Ikerketak enpresarekin eginiko Zerbitzu-Kontratuaren bidez.

Lanak zundaketa sail batez abiatu ziren, alde batetik 4 egitura zein sakon zen eta nolako zabalera hartzen zuen jakitearren eta, bestetik, II. sektore honetan oraino induskatu ez diren zonaldeetan bestelako arkitektur hondakinak ba ote diren ikertzeko.

Hala bada, zundaketa sail honek bide eman digu 4 egituratik hurbil edo harekin erlazionatuak diren zonaldeetan diren ageriko arkitektur elementuen presentzia egiaztatzeko, elementuok dudarik gabe 4 egituraren osagaiak direlarik. Hala gertatu zaigu sei zundaketatan. Gainerakoak ondorio desberdinekoak izan dira, haietariko bederatzi arkeologi estratu guztiz ahulekoak gertatu direlarik, hareharriak, zeramika mugituak, etab. barreiatuak eman dituztelarik. Gainerako guztiak emaitzarik gabekoak gertatu dira.

1989 urtean aurkituriko 4 egiturako lekumenetik hurbilen dauden zonaldeetan izanezik, zundaketen bidez hautemaniko arkeologi elementuak guztiz ahulak dira eta zenbaitetan ez da batere aurkitu.

Horrenbestez, izandako ondorioak ikusirik, garbi 'esan dezakegu II. sektore honetan ez dagoela, ezagutzen •ditugunez gain, bestelako egituren presentzia salatzen duen aztarnarik.

4 egituraren indusketari dagokionez, zonalde horretako azaleraren eta erromatar mailaren arteko estratuen kalitatea eta izaera zehaztu genituen zundaketen analisiaren bidez. Halatan, arkeologi ikuspuntutik antzuak zirela egiaztatu ondoren guzti hura jasotzeari ekin genion, hondeatzeko makina bat erabiliz. Hala eta guztiz, estratu

de una máquina excavadora. Dejamos, no obstante, un margen de seguridad con el fin de no alterar los estratos fértiles, los cuales se retiraron mediante procedimientos manuales.

Tras la excavación de esta última capa fueron apareciendo diferentes elementos de carácter constructivo: sillares y lajas de arenisca, entre los que se aprecian tanto derrumbes como muros **in situ.** Como consecuencia de ello se han podido diferenciar dos grandes recintos que, a juzgar por lo observado en este estrato, no llegaban a cerrarse.

Por otro lado, en la zona más meridional de la finca y desconectado, al menos aparentemente, con la estructura, se halla un muro que corre en dirección Norte-Sur. Una vez que el proceso de excavación se encuentre más avanzado en esta zona podremos ofrecer más datos sobre su naturaleza y función.

El material, cerámico localizado ha sido ciertamente abundante. Entre las cerámicas de construcción mencionaremos los diversos fragmentos de **tegulae e imbrices** hallados, así como de algún fragmento de ladrillo de pavimentación. La **terra sigillata** está representada con diversas formas cuya cronología cabría centrar en torno a los siglos II y III d.C. En cuanto a la cerámica común es también abundante con diversas formas de ollas, cuencos, morteros, cántaros, etc.

Por último los resultados de la excavación en la estructura 3 han sido muy positivos. Así hemos podido confirmar la existencia de, al menos, dos fases de ocupación en ella.

